

JUSTIFIKAZIO-MEMORIAREN EREDUA

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 50. artikulua ezartzen du hitzarmenak sinatzeko eta hark ondorioak sortzeko nahitazko izapidea dela hitzarmena proposatzen duen organoak justifikazio-memoria bat egitea, zeina lankidetzaren hitzarmenari erantsi behar zaion.

Jarraian, ondorio hauetarako erreferentzia moduan erabili behar den justifikazio-memoriaren eredua jasotzen da. Ereduan, araudiak eskatzen dituen gutxieneko atal guztiak biltzen dira, eta, haietako bakoitzean, islatu beharreko edukiari buruzko azalpen labur bat dago. Gainera, atal batzuetan memorian hitzez hitz sartu litezkeen zenbait testu adierazten dira, **letra etzanez eta beltzez**.



.....REN ETAREN ARTEAN
.....RAKO SINATUTAKO HITZARMENAREN JUSTIFIKAZIO-
MEMORIA

1. Hitzarmena egitearen premia eta egokitasuna.

Aztertuko da hitzarmenean zer argudio jasotzen den justifikatzeko beharrezkoa dela hitzarmena egitea alderdien artean, interes orokorreko helburu komun bat lortzeko.

Halaber utziko dira jasota zer jarduketa egin diren publizitatea emateko edo hitzartuaz (edo hitzartuez) gainera beste subjektu batzuen lehia sustatzeko. Halakorik egin ez bada, jasota utzi behar da sinatuko den hitzarmen horretan behar bezala egiaztatu dela interes ekonomiko, sozial edo humanitarioko edo bestelako zer arrazoi dauden, interes orokorreko helburu komun lortzearen, justifikatzen dutenak hitzarmena sinatzea kasuan kasuko erakundearekin edo erakundeekin eta pribilegiozko traturik egotea saihesten dutenak.

2. Hitzarmenaren eragin ekonomikoa.

Bigarren atal honetan, jasota utzi behar da badaudela eta arrazoizkoak direla jarduketan memoria/zerrenda bat eta haien gastu-sarreraren aurrekontu bat, alderdiek egingo dituzten finantza-ekarpenak zehazteko balio izan dutenak.

3. Jardueraren kontratuaz eta diru-laguntzaz besteko izaeraren analisia.

Lankidetzeta-hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47.1 artikulua ezarritakoarekin bat.

Halaber, hitzarmenak diru-laguntza bat bideratzen badu, Diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauan eta haren erregelamenduan aurrez ikusita dagoena bete beharko du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 48.7 artikuluan zehazten denarekin bat.



Hori guztia dela eta, hitzarmenaren xedea eta edukiak aztertuko dira, egiaztatzearen 169/2014 Foru Dekretuaren 46. artikuluan ezarritakoaren barruan sartzen den lankidetzaz-hitzarmen arrunt bat dela (dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da) zein Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen VI. kapituluan ezarritakoaren barruan, eta, hala badagokio, aztertuko da ea lege-gaikuntzaren bat dagoen hitzarmena egiteko oinarri dena.

- 4. Bete egiten dela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa zein Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuan ezarritakoa (azken foru-dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten du, zeinak garatzen baitu Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina).**

Sinatuko den lankidetzaz-hitzarmena aztertuta, atal honetan jasota utzi behar da ezen bete egiten dela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean zein Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren 46. artikuluan ezarritakoa (azken foru-dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten du, zeinak garatzen baitu Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina).

Data eta administrazio-unitateko arduradunaren/karguaren sinadura